

**Art & Languageko kidea eta British Open Universityko irakaslea den Charles Harrisonek 2003ko azaroaren 18an Artelekun, (a-J) artea eta jakintza mintegiaren barruan eman zuen *Complexity and Disinterest* konferentziaren laburpena.**

Charles Harrisonek, bere hitzaldia hasteko, artearen egungo egoerari buruzko deskribapenak oso desberdinak izan daitezkeen arren "horrek ez duela esan nahi duela gutxiko historiari buruz ditugun bertsioetan batere ados ez gaudenik" esan zuen. Bere iritziz, azken berrogei urteetako artearen edozein historia onargarrik zehazki bi zirkunstantzia-serie lehenetsi behar ditu. Zirkunstantzia horietako lehenengoa 60ko hamarraldiaren erdialdearen eta 70eko hamarraldiaren hasieraren artean arte eta kritika modernoaren autoritateak jasan zuten gainbehera nabarmena da, gutxi gorabehera arte kontzeptualaren jatorrizko mugimenduaren aldiari. Bigarren zirkunstantzia, Charles Harrisonen iritziz, 80ko hamarraldian gertatzen da, mendebaldeko ekonomiatan, merkatu finantzarioko praktiken desarauketa zabalarekin. Zirkunstantzia hori, gutxi gorabehera, antzinako inperio sobietarraren erorketarekin batera gertatzen da.

Modernitatearen estatusaren gainbeheraren eta merkatu finantzarioen desarauketaren legatuak azaltzen du, neurri handi batetan, arte berrienari dagokionez adostasun batetara iristeko dagoen zailtasuna. "Legatu horrek garrantzi zuzena du artearen eta jakintzaren arteko harremanei buruzko ikerketarentzat" esan zuen.

Arte unibertsalaren konplexutasun galtzea da Charles Harrisonek bere konferentzian aztertu nahi izan zuen fenomenoetako bat. Bere iritziz, negozio-gizonari, kultura-kudeatzaileari, komunikabideetako komunikatzaileari edo ekintzaile politikoa dagozkien interpretazio- eta produkzio-ereduak onartzeak artistak ordura arte ezagutu ez zuen gizarte-estatus bat lortzea eragin du, baina horregatik prezio altu bat ere ordaindu behar izan du: arte unibertsalaren ezaugarri zen konplexutasuna galtzea. "Suposatzen dut argudio horren inplikazioa dela egungo artearen konplexutasunaren galera nabarmen bat bere praktikan inplikaturako horien autoidentifikazioaren aldaketa batekin lotuta dagoela - historikoki, ez logikoki-; aldaketa horren izaera hainbestekoa dela inpartzialtasuna erlatiboki debaluatuta dagoela, eta inpartzialtasunaren deskreditua eta konplexutasunaren galera elkarren artean inplikatzeko direla" adierazi zuen Harrisonek.

Charles Harrisonen iritziz, kontu berezi batekin erabili behar dira *arte unibertsala* bezalako terminoak, hizkuntza desberdinetan konnotazio desberdinak izan ditzaketelako. *Arte unibertsala*, bere iritziz, guztion izenean hitz egin nahi duen ahots gisa definitu daiteke. Estetika modernoaren erregimenak sortutako eta onartutako artea da, kanonaren artea, Clement Greenbergekin "gustuaren adostasuna" izendatu zuen horren bidez ezarria. Ideia horien arabera, artistak merkataritza-interesetikiko zuen askatasuna zen bere ekoizpenaren izaera desinteresatuaren eta bere independentziaren bermea.

"Une honetara arte aipagai izan dudana teoria modernoaren ohiko azalpena baino ez da izan. Neure helburua ideia horiek zenbateraino zaizkigun ezagunak agertzea izan da; eta baita zaharkitu xamar geratu direla adieraztea ere", esan zuen Charles Harrisonek. Bere ustean, beharrezkoa da 60ko hamarkadatik gaur arte etengabe erasotua izan den ideia sistema aintzat hartzea.

60ko eta 70eko hamarraldien amaierako arte errebisionistaren kritika eta historian erasotzen diren jarrera moderno guztietatik, horietako inor ez zen inpartzialtasunaren eta unibertsaltasunaren artean aldarrikatzen den konexioa bezain erasotua izan, Charles Harrisonen iritziz; horren aurrean, tradizio intelektual

marxista eszeptizismo-iturri garrantzitsu zen. Artista lan egiteko bizi den norbait bezala idealizatzeari dagokionez, materialismo historikoak gogorarazten zuen gizakia historia duen espezie gisa definitzen duena, hain zuzen ere, bizitzeko lan egin behar dugula dela. Eta kritikoa gustu inpartzialaren organo kritikoa gisa idealizatzearen aurrean, klaseen gizarte baten barruan, burgesia heziaren lehenetsun eta interesen bozeramaile gisa, kritika moderno oso posizio altuan aurkitzen dela gogorarazten zuen. "Azterketa-mota horren ondorioz, artistak historia sozialean birgizarteratu ziren, teoria moderno estandarrak historia sozial horretatik aldendu egin baitzituen. Era berean, argi utzi zuten beraien ere "diru-truke" egiten zutela, eta, gainera, beren interes abangoardistak idazle, adituez, arte-merkatariz eta bildumagilez osatutako kolektibo abangoardista oso baten interesetara lotuak zeudela", adierazi zuen.

Argudio horiei, artearen historialari feministek, modernotasuna sistema patriarkal gisa ulertzen zuen bertsioa gehitu zieten. 80ko eta 90eko hamarraldi amaieran, ahots kritikoa geroz eta gehiago ziren, eta kanon modernoaren izaera inperialista eta baztertua aditzera ematen zuten. Artearen historia errebisionista honetan, heroi tradizionalak osatuak izan ziren, Charles Harrisonen iritziz.

Idea-mota horrekin batera, arte kontzeptualaren mugimenduak suposatu zuen barne-krisia gertatu zen. Izan ere, arte kontzeptualak pintura edo eskultura bezalako *high-art* delakoak erabilitako estatus eta sinesgarritasunaren gainbehera gogorra eragin zuen. Idea errebisionisten bilaketa, halaber, Ilustrazioaren porrota iragartzen zuten programa teorikoekin, narratiba handien erorketarekin eta izaera postmodernoaren orokortzearekin batera gertatu zen. "Teoria postmodernoek nagusitasun edo zentralismo kulturalera helburu oro eszeptizismoz ikusteko joera nabarmena zuten. Era berean, korrante nagusiaren orde marjinalaren, baztertuaren eta hibridoaren kausa sustatzeko joera zuten. Izan ere, hori da kritika modernoak saritu ohi duena", esan zuen Charles Harrisonek.

Ondoren, Charles Harrisonek, duela hogeita bost bat urte, British Open University delakoan garatutako proiektu baten zuzendari gisa bizitako esperientzia azaldu zuen. Bere esperientziatik ondorioztatu zuena da, inpartzialtasunaren printzipioa erabat baztertzeko bada, artea jarduketaren eredu manipulatuaren eraginpean uzten dela, gainerako praktika sozialak bezala: negozio-gizonak, kudeatzaile kulturalak, komunikabideetako komunikatzaileak edo ekintzaile politikoa. Eta hori egiten dugun bitartean, artea itzultzen arituko gara, zaila eta ezohikoa dena proba-kategoriara murriztuz. Arteari buruzko argudio akademikoak ez genituzke nahastu behar arteak guri irakasteko eduki dezakeenarekin. Arteak, nolabait ere, pentsatzeko modu bat bada, hori ezin da izan itzulgarria edo interpretagarria besterik, ezta bere edukitik bereizgarria ere" esan zuen.

-----

## CC

Testu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.